

## AURTENGO LEZOKO ZUHAITZ ETA LANDARE LANDAKETAK

---




*Aurten gogor ekin dute Altamiran.*

**L**ezoko Ekoloji taldekoek eta Udaberria iristearekin batera amaitutzat eman dute aurtengo zuhaitz eta landare landaketa. Aurtengo neguaren zati garrantzitsuena Altamira auzoari eskeini diote gehienbat, bertan txukunketa lanak (sasi mozketa, zabor bilketa...), eta ondoren eta bertako bizilagunekin 80 zuhaitz inguru berlandatu dituztelarik.

Jaizkibelgo Iparragirre inguruan ere beste hainbeste egin dute, mendi zati bat txukundu eta berpoblatuz.

Taldekoek diotenez aurten Epertxokori nahi baino denbora gutxiago eskeini diote, hemen ezkurra erein dutelarik. Esan beharra dago baitaere, landare gehienak, herriko Hazitokitik berlandatuak izan direla, tamaina ederreko landareak, eta gainontzekoak, herriko zenbait bizilagunek emandakoak. Bestalde Udalak aurtengo landaketetan huts egin duela jakinarazi nahi dute, inongo landaketarik ez bait dute egin, bai batzuk lekuz aldatu «molestagarriak» omen zirelako. Besterik gabe hona hemen aurtengo landaketen zerrenda:

*Herriko  
hazitokia  
bere fruitu  
onenak  
ematen  
hasia da.*



**ALTAMIRA AUZOAN:** ✓ 47 lizar

✓ 53 astigar negundo

✓ 4 makal

✓ 4 platanondo

✓ 2 astigar arrunt

✓ gereziondo bat

**IPARRAGIRREN:** ✓ 43 aritz

✓ 25 lizar

✓ 10 aranondo

**EUSKALERRIA ZUHAIZTIAN:** ✓ 5 espirea

✓ 4 bonetero japoniar

**MARKESANEAN:** ✓ Gereziondo bat

**INDUSTRIALDEAN:** ✓ 2 platanondo